

Kontrabotere
autonomo
eta indartsu baten
garrantzia

PABLO SOLÓN

Kontrabotere autonomo eta indartsu baten garrantzia

Pablo Solón

- 3 Hegoamerika ezkerretara
- 5 Gasaren nazionalizazioa
- 6 Estatu plurinazionala
- 7 “Ongi bizitzea”
- 8 Estraktibismoak jarraitu egin zuen
- 9 Gizarte-erakundeak, aldatetaren neurria
- 11 Dena garapenaren alde
- 12 Bezero-trataera
- 15 Kontraboterea
- 16 Eskuina, zelatan
- 17 Proposamenak egiteko gaitasuna
- 17 Ustelkeria
- 19 Agenda zehaztea



Dokumentuak 34

2016ko uztaila

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

Pablo Solón*

Lehen aldiz nago hemen Nafarroan, Euskal Herrian. Ez dut sobera jarraitu zuek hemen egin duzuen, baina asko entzun dut horri buruz. Nolanahi dela ere, inoiz ez dut aukerarik izan hartu-emanik izateko, eta niretzat plazer handia da hemen egotea eta Euskal Herriko mugimendu eta erakunde sindikalen eskarmentutik ikastea.

Latinoamerikan eta zehazki Bolivian gertatu dena azaltzea da nire asmoa, eta kasu horietatik ateratako ikasbide eta esperientzien gainean apur bat eztabaidatzea. Umiltasunez eta autokritika eginez adieraziko dizkizuet ikasbide eta esperientzia horiek.

Hegoamerika ezkerretara

Latinoamerikak ezkerrean zira hartu zuen, baina zira hori, funtsean, ez zen hauteskundeetan lortutako garaipenen eskutik etorri. Aitzitik, gizarte-mugimenduen bultzadak eta indarrak eragin zuen. Hauteskundeetako garaipenak ondoren etorri ziren. Bolivian, 1985. urteaz gerotik, porrota besterik ez genuen izan ia hamabost urtez. Neoliberalismoak gobernu bereganatu zuen eta guztia pribatizatu ziguten: meatzeak, petrolioia, elektrizitatea, trenbideak... Den-dena pribatizatzeko politikari jarraitu zioten. Borrokak etorri ziren bata bestearen atzetik eta aldiro gu izaten ginen gal-tzaile.

Antolatzea eta ekimena hartzea erabaki genuen. Hala esan genuen geure baitan: *“Ez gara zain geratuko berriro noiz jotzen gaituzten; aitzitik, hurrengo borrokarako prestatuko gara”*. Eta uraren gaia aukeratu genuen. Edateko ura eta saneamenduari buruzko lege baten bidez eta Cochabamba hirirako kontzesio baten bidez ura ere pribatizatzen saiatu ziren, eta horren aurrean erresistentzia handia antolatu genuen uraren

* Testu hau Pablo Solónek, Evo Moralesen Boliviako gobernuaren NBEko enbaxadore ohia, 2016ko ekainaren 15ean Katakarak-en (Iruñea) eman zuen hitzaldiaren transkripzioa da.

koordinadoraren bidez. Hor bildu ginen erakunde sindikalak eta nekazarien eta indigenen elkarteak, baita profesionalak, bizilagunen elkarteak, GKEak eta ingurumenaren aldeko ekintzaileak ere, eta privatizazio hori geldiaraztea eta garaitzea lortu genuen. Legea aldatzera eta Ipar Amerikako Bechtel transnazional handiarekin privatizazio-kontratua haustertera behartu genuen gobernua.

Garaipen horrek susperraldi bat ekarri zuen Bolivian, gizarte-mugimenduen ahalmenaz ohartu baikinen: *“Urarekin hau lortzeko gai izan bagara, zergatik ez dugu gauza bera egiten gure baliabide ekonomiko nagusiarekin, gasarekin?”*. Gasa privatizatuta zegoen, baina hura berreskuratuz gero, transnazionalak ez zituzketen eramango gasak sortzen dituen erabilerak, eta, aldiz, guk geuk hezkuntzarako, osasunerako, lanpostuak sortzeko, bizi-baldintzak hobetzeko... balia genitzakeen erabilera horiek. Horrela etorri zen, gerora, gasaren gerra.

La Paz hirian, berriro ere uraren gaiarekin loturiko beste mobilizazio bat antolatu genuen, eta hiriak Suez konpainiarekin zuen kontratua haustea lortu genuen; izan ere, La Paz eta El Alto hirietan oinarrizko saneamenduaren eta edateko uraren emakida zuen konpainia horrek. Hainbeste urtetan defentsiban egon ondoren, gizarteko erakundeetan eta bereziki nekazarien eta indigenen elkarteetan sortu zen borroka sozialen prozesu honen ernamuina; izan ere, Bolivian, garai neoliberallean oso gogor kolpatu zituzten langileen sektoreak; gure langileen abangoardia, meatzariak osatua, birkokatu eta erabat suntsitu zuten: guztira, 50.000 meatzari kale-ratu zituzten aldi hartan.

Orduan, gizarte-erakundeek esan zuten: *“Gure tresna politikoa izan behar dugu; nahikoa da borroka egiteaz, zertarako eta gero, hauteskundeetan, eskuinaren, eskuin-eskuinaren eta are eskuindarragoen artean bozkatu behar izateko... Aski da, gure tresna sortuko dugu”*. Ez genuen alderdi bat eratu nahi, eta horregatik sortu genuen herrien subiranotasunaren aldeko tresna politikoaren ekimena. Hori izan zen ekimen horren jatorrizko izena. Inoiz ez zuten onartu izaera juridikoa ematerik eta, azkenean, beste alderdi baten sigla erabili genuen, nahiz eta berez ez izan ezkerrekoa; Movimiento al Socialismo (Mugimendu Sozialista) alderdiarena, hain zuten. Hasiera batean hiru legebiltzarkide baino ez zituzten lortu, baina gerora, garaipen harrigarria lortu zuten 2005eko hauteskundeetan, botoen %54arekin. Historikoa izan zen.

Horrenbestez, gizarte-mugimendu oso indartsu baten eta mugimendu horrek sortutako tresna politikoaren uztarketa izan zen. Alderdia tresna bat zen; izan ere, guretzat, gizarte-mugimenduek agintzen dute, eta ez alderdiak.

Gobernura iritsi ginenean, ezkerreko gobernu batek boterea beregatzatzen duenean eta gauzak aldatu nahi dituenean gertatu ohi dena gertatu zen hasieran: eskuinak jazarpen gogorrari ekin zion, sabotajeen eta boikotaren bidez. 2006 eta 2007. urteak latzak izan ziren. Gobernuko agintariek ezin zuten zenbait eskualde eta hiritara bidaiatu, eskuina haustura prestatzen ari baitzen, herrialdea zatitu nahian. Gerra zibilaren atarian egon ginen; hildakoak ere izan ziren norgehiagoka horretan.

Egoera horrela, denok genuen agenda bat, urriko agenda, eta hor zehaztu genituen gure nahiak. Gobernura iritsi aurretik sortu genuen agenda hori, mugimenduetatik sortu ere. Hauek ziren agenda horretako ardatzak:

1. Gasa, baliabide nagusia, nazionalizatzea, estatura ekartzea eta banatzea.
2. Batzar Konstituziogile batera deitzea, herrialdea berrantolatzeke; izan ere, gure herrialdean barne kolonialismo handia izan da, eta kolonialismo horrek ez ditu inoiz onartu, osotasunean, lurralde honetan bizi diren nazioak eta nazionalitateak: aimarak, kitxuak eta guaraniak. Batzarra latza izan zen. Ezin duzue imajinatu zer-nolako borrokak izan ziren. Hauteskundeak irabazi arren, arazo ikaragarriak genituen, eskuinaren erresistentzia gogorraren ondorioz.
3. Lurraldea, indigenen eta nekazarien logikaren arabera. Martxa asko izan ziren lurraldearen kontrola berreskuratzeko. Hemen komunitate indigena bat bizi da. Gobernuak ezin ditu lur-azpiaren, mineralen, gasaren, petrolioaren eta abarren gaineko emakidak nolahi eskaini. Lurraldeak esan nahi du bertan bizi direnek kudeatu behar dutela, bai lurraren gainean eta bai azpian dagoena. Mendez mende gure eskualdean komunitatea zer izan den eta zer den, ikuspegi eta irudi horretatik dator lurraldearen autogestio hori.

Gasaren nazionalizazioa

Hiru puntu horiek ziren buruan genuen herrialdea hezurramitzeko oinarriak. Aurrera egitea lortu genuen. Gasa nazionalizatzea lortu genuen, baina modua, hasiera batean, ez zitzaigun oso egokia iruditu. Kontratuak berriro negoziatu genituen. Bolivian, hiru aldiz nazionalizatu dugu gasa eta petrolio: 1930eko hamarkadan, 1970ekoan eta oraingo honetan. Eta aldiro, berriro pribatizatu dituzte.

Kontratuak berriro negoziatzeak esan nahi du aurrez transnasionalek irabazien %80 eramaten zutela; orain, %20 eramaten dute, eta guk, %80.

Baina ez genituen transnazionalak kanporatu. Izan ere, gasarena ez da izan nazionalizazioa zentzu hertsian, (kontratuaren) baldintzak berriro negoziatzea baizik, eta, jakina, horri esker gobernuak baliabide ugari eskuratu du. Estatuaren diru-sarrerak azkar handitu ziren, hirukoiztu edo lau-koiztu, eta gaur egun, duela hamar urte baino 6-7 aldiz handiagoak dira. Izan ere, gainera, orduantxe hasi zen igotzen petrolioaren prezioa eta, ondorioz, baita gasarena ere. Eta %20 beharrean %80 izanda, gure nazio-arteko erreserbak, 1.400 milioi dolarrekoak lehen, 15.000 milioikoak izatera pasa ziren 2014. urtearen amaieran.

Estatu plurinazionala

Batzar Konstituziogilean funtsezko aldaketa bat egin genuen: errepublika izateari utzi eta estatua plurinazionala izatera pasa ginen. Boliviako kasuan, errepublikaren kontzeptuak Espainiako kolonizazioaren ikuspegia adierazten zuen, kolonizatzaileek ez baitzuten aintzat hartu hemen aimarak, kixuak, guaraniak eta beste 34 nazio eta herri indigena daudela. Estatu plurinazionala izan nahi genuen, nazio eta nazionalitate guztiak baldintza berdinetan onartu eta aintzat hartuko dituen estatua. Arazo asko izan ziren, batzuek hala esaten baitzuten: “*Gu bertakoak gara. Zergatik esan behar diogu gure buruari indigena? Izen hori espainiarrek jarri ziguten... Gu hemengoak gara, jatorrizkoak, bertakoak*”. Beste batzuek, berriz, “*gu nekazariak gara*” zioten, mendeak igaro baitziren eraldaketa eta menderakuntza hartatik. Eta konstituzioan, azkenik, denak batzeko konponbideak bilatu ziren: “*Herri indigenak, nekazariak, bertakoak*”.

Konstituzioak 34 herri, nazio eta nazionalitateak onartzen ditu. Batzuek uko egiten zioten nazionalitate terminoari, errepublika ezarri baino hainbat mende lehenagotik bazirelako: “*Gu nazio bat gara*”. Maila horretan izan ziren gatazkak eta arazoak izugarri leundu eta gutxitu dira. Aldaketa hori oraindik ez da guztiz gauzatu, baina adibide bat jartzearen, Bolivian, polle-*ra* deritzon soineko luzea zeramatzen emakume indigenek duela 12-13 urte ezin zuten bost izarretako hotel batean sartu. Konstituzioaren eskutik eta presidente indigena bat agintera iritsita, egoera hori aldatzen hasi zen; ezin zen halako bazterketarik ametitu. Horrek ez du esan nahi erabat desagertu denik, baina askoz gutxiago dago. Aldaketa funtsezkoa izan da. Lorpen handia izan zen guk “*iraultza kulturala*” izendatu genuena.

Gobernuak hainbat neurri onartu zituen aurrez pribatizatuak izan ziren zenbait sektore berreskuratzeko. Batzuk, kontratuak berriro negoziatuta; beste batzuk, desjabetzeen bidez, trukean konpentsazio txiki bat ordain-

duta, jakinik konpentsazio hori gero bueltan itzultzen zela estatura. Kasurik arrakastatsuen telekomunikazioen sektorearena izan zen: estatuak berreskuratzeko ordaindu zuen zenbatekoa huskeria izan zen azken urteotan jada eskuratu dituen erabilerekin alderatuta. Sektore guztietan emaitzak ez dira hain onak izan, baina elektrizitatean, adibidez, merkatu egin zen sektore pobreenen tarifa; oinarritzko soldata bost aldiz igo da; muturreko pobrezia adierazleak ia desagertu egin dira, eta gobernuak, gasaren esportazioari esker diru asko zuenez, hainbat bono egiteko aukera zuen: laguntza sozialeko bonoak ikasle gazteentzat, osasun-zerbitzurako bonoak, emakume haurdunentzako zerbitzua, ospitaleak, ikastetxeak eta abar eraikitzeako bonoak...

Horrek herritarren babesa sortu zuen, eta bultzada horri esker eskuinaren konspirazioarekin amaitu ahal izan genuen; 2008. urtearen inguruan garaitu genuen eskuina. Erreferendumean eta hauteskundeetan irabazi genuen; hain zuzen, hauteskundeetan, gobernuak botoen %64 eskuratu zuen 2009an.

Une horretara iritsi ginenean, bigarren agintaldirako hauteskundeak irabaztean, parlamentuaren gehiengo zabalagoa izatea lortu genuen, eta horrek aukera eman zuen epaileak aldatzeko, estatuaren kontuak fiskalizatzen zituen errepublikaren kontalariaren arazoa konpontzeko... Hau da, erakunde guztiak kontrolatzea lortu genuen; helburua, ordea, eskuinak sabotatzen ez jarraitzea zen. Baina bigarren hauteskunde horiek irabaztean, garaipe handia inondik ere, orduan hasi ziren arazoak, jada ez baitzegoen eskuinaren oposiziorik eta gobernuak berebiziko boterea eskuratu baitzuen, botere politikoa nahiz ekonomikoa.

“Ongi bizitzea”

Eta abiapuntua honako hau da: *“Zertarako egin dugu hau guztia?”*. Prozesuaren hasierako dokumentuetan esaten genuen *“ongi bizitzeko”* zela. *“Ez dugu hobeto bizi nahi inoren bizkar edo naturaren bizkar; harmonia bultzatu nahi dugu gizakien artean eta gizakiaren eta naturaren artean, eta estraktibismoaren ziklo horretatik atera nahi dugu, azken bostehun urteotan naturako baliabideen gehiegizko erauzketaren mende bizi izan baita gure herria”*. Izan ere, Boliviako ekonomia produktu bakarreko esportatzailea izan da: espainiarren garaian, zilarra izan zen; zilarraren ondoren (Potosiko Cerro Rico), goma eta eztainuaren ustiaketa etorri zen; hurrena, petrolioarena eta gasarena... Epe luzera, joera hori aldatu nahi genuen, eta helburu hori paperean jaso. Produktu bakarreko esportatzaile izateari

utzi eta ekonomia dibertsifikatzera jo nahi genuen; nazioarteko merkatua-
ren mende egoteari utzi eta herrialdearen barnean (nekazari eta indigenen
komunitateetan, ekoizle txikien artean...), Bolivian diren langile sektore
guztietan, gure ahalmenei bultzada eman nahi genien.

Baina eskuina garaitu genuenean, barne eztabaida piztu zen gober-
nuan. Batzuek, hala zioten: “*Zer egingo dugu? Bolivia agroekologikorako
bidea hartuko dugu? Estraktibismotik ateratzen hasi eta bestelako Bolivia
baterantz joko dugu?*”. Beste batzuek, aldiz, bestela pentsatzen zuten eta
azkenean gain hartu zieten aurrekoei: “*Eskuinaren aurkako garaipena sen-
dotu nahi badugu, gaur bertan behar ditugu baliabide ekonomikoak.
Gasaren irabazietatik eskuratuko ditugu, orain garesti baitago. Jarrai deza-
gun estraktibismoarekin, hortik lortutako etekinak bonoetara bideratu ditza-
kegulako, gizarteko zenbait sektorek arrazoi eta eskubide osoz eskatzen
dituzten aldarrikapenei bide eman diezaiekegulako, mundu guztiak nahi
baitu bere arazoari berehalako erantzuna ematea*”.

Estraktibismoak jarraitu egin zuen

Orduan, aldaketarako hautua egin orde, eredu estraktibistari jarraitu
genion. Nago aldaketa hori ezin zitekeela gobernura iritsi eta hurrengo
urtean egin, lehenetsuna, orduan, eskuina setiatzea baitzen. Baina uste
dut 2009. edo 2010. urteetan trantsizioaren lehen urratsak eman zitezke-
ela, eta ez zen horrelakorik gertatu. Areago: aurreko ereduan sakondu zen,
ez kapital handiarentzat dirutza biltzeko asmoarekin, diru hori aurrez aipa-
tutako mekanismoen bidez birbanatzeko baizik.

Arazoa oso garrantzitsua da; izan ere, gaur egun, Bolivian, baita
Ekuadorren, Venezuelan eta neurri batean Brasilen eta Argentinan ere,
gobernu progresistak izan dituzten herrialdeotan guztiotan, ekonomia
dibertsifikatu orde, azken hamarkadetan sendotu egin da lehengaien sek-
tore esportatzailea, balio erantsi gutxiko sektorea. Bistan denez, horrek
zenbait lorpen eta bono ekarri ditu (Brasilen, familia-poltsak, adibidez),
baina esan bezala, ekonomia horretan oinarrituta. Eta orain, munduan
lehengaien prezioak amiltzen ari diren honetan –bereziki petrolioarena,
mineralena eta *commodity*ena–, produktu horien esportazioan oinarrituta-
ko ekonomiak ahultzen hasten dira. Bide beretik, gobernuen baliabideak
urritzen hasten dira eta, azken-azkenean, krisi ekonomikoa sortzen da,
herrialdearen arabera handiagoa edo txikiagoa. Baina denok gaude krisian
Latinoamerikan. Ez genuen 2008ko krisia jasan, zuek bezala, baina gure-
ra ere iritsi da krisia eta, eredu horretatik atera behar genuela behin eta

berriro esan arren, horri jarraitzen diogu, lehengo lepotik burua, eta orain egoera oso larria da. Esportazioen diru-sarrerak %30 jaitsi dira Bolivian; nazioarteko erreserbak ere erortzen hasi dira, 3.000 milioi dolar baino gehiago. Ekuadorko kasua are larriagoa da, eta Venezuelakoaren berri baduzue. Eta ezin dugu ulertu Brasilen eskuinak eman zuen kolpea –izan ere, kolpe bigun bat izan zen– ezpada herrialdeak bizi duen krisi ekonomikoaren testuinguruan. Egoera hori dela eta, biztanle askok eta askok, Dilma Rouseff presidenteari egindakoa legez kanpokotzat jo arren, ontzat ematen dute beste gobernu bat, egoera hori irauli dezakeelakoan, ekonomia zulora amiltzen ari delako.

Gaur egungo hondamendi ekonomikoa ez da soilik egoeraren arabekoa; Boliviako gobernuan batzuek uste dute hau etorri bezala joango dela. Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (Cepal) txosten oso interesgarria argitaratu berri du prezioen “*ziklo luzeei*” buruz, eta 1900. urtetik gaurdainoko prezioen bilakaera jaso du lan horretan (eztainua, petrolioa, zinka, urea). Txostenaren arabera, ziklo luzeek 36 bat urte irauten dute; 13-14 urtean behin goraldi bat izaten da eta ondoren beheraldi bat etortzen da. Hemen hasi da erorialdia. Azterlan ekonomiko askok adierazten dute beheraldi horrek, seguru asko, hamarkada bat baino gehiago iraungo duela. Arazo larria da; oso larria.

Ondo dakit horren berri, gobernuan egon bainintzen 2011. urtera arte, eta ez ditut eskuak garbitzen, ezta gutxiago ere. Ni ez nintzen ministro, baina bai enbaxadore, eta Evorengandik oso gertu egon nintzen eta nik ere badut nire ardura egoera honetan. Baina orain, nora goaz?

Gizarte-erakundeak, aldaketaren neurria

Gai ekonomiko hau beste bati loturik aztertu beharra dago. Pentsatzen dut zuetako gehienak gizarte-mugimenduetako, kanpainetako eta askotariko elkarteetako ekintzaileak zaretela. Nola neurtzen dugu aldaketa-prozesu bat aurrera egiten ari den ala ez? (Bolivian ez genion prozesu iraultzailea esaten, aldaketa-prozesua baizik). Neurtzeko adierazle nagusia ez litzateke oinarrizko soldataren igoera izan behar. Batzuek baietz diote, hori izan beharko litzatekeela adierazle nagusietako bat. Edo BPGdaren hazkundea, analfabetismo-maila...

Nire ikuspegitik, aldaketa-prozesua neurtzeko elementu nagusia aldaketa horren eragile diren erakunde eta gizarte-mugimenduen indarra da. Izan ere, eraldaketa-prozesu hori ez dute gauzatuko gobernuan dauden pertsona gutxi batzuek; aitzitik, gizarte osoak egingo du. Hori dela eta,

aldaketa-prozesuak aurrera egiten du gizartea mobilizatzen eta antolatzen den heinean, gizartearen egiturak dinamikoagoak eta sortzaileagoak diren neurrian; gizarte-mugimenduek proposamenak bultzatzen baldin badi-tuzte, elkartuago badaude, solidarioagoak badira... Gai hori oso garrantzitsua da.

Zoritxarrez, Bolivian eta Ekuadorren, gobernuak hasi da esaten: *“Herriaren gobernuak gara; beraz, gizarte-erakundeek eginkizuna da gobernuari babesa ematea”*.

Eta buruzagi gehienak argudio nagusi horren abarotan bildu ziren gobernuak. Oso zaila zen. Gogoan dut boterera iristean, ez Evo eta ez haren hurbileko inor ez zela aurrez goi-funtzionarioa izan inongo gobernu-tan. Denok gentozen borroka sozialetatik edo akademiatik, zailduak geunden ezarrirako boterearen aurkako jardunean, eta bat-batean, hara non 256 goi-kargu bete beharrean ginen: ministroak, ministroordeak, enprestatoko eta erakundeetako gerenteak... eta zerrendak ez zuen ematen. Karguak bete beharrendaren ondorioz, berezko liderrik gabe geratu ziren gizarte-erakundeak. Asmo onarekin baina bururik gabe utzi genituen. Eta batek estatuko ardura hartzen duenean, oso asmo onak izan ditzake, eta hala izan behar ditu, baina estatuaren eta boterearen logika oso desberdina da gizarteko erakunde batenaren aldean.

Adibide bat jarriko dizuet: ni kanpo-harremanetarako sailean sartu nintzen, merkataritza libreko hitzarmenak bertan behera nola utzi jorrazteko. Eta afera horretan, maputxeak, Txileko indigenak, gobernuarekin aurrez aurre genituen. Boliviako eta Txileko gobernuen arteko harremana betidanik txarra izan da eta gure asmoa erlazio hori berregitea zen, baina egoterra hartan, maputxeek Boliviaren babes esplizitua nahi zuten. Boliviako gobernuak, logika pragmatikoari jarraituz, ez zuen aferan nahastu nahi izan; epelak eta bi entzun beharko zituen Txileko politikaren barne arazoetan sartzeagatik. Baina Boliviako nekazari indigenen elkarteek, autonomoak izaki, esku hartu behar zuten aferan, haien zat ez baitago mugarik; maputxeak ere indigenak dira. Zer axola zaie gizarte-erakundeek gobernuak beste era bateko logika batez ari bada gauzak egiten? Elkarte eta erakundeek logika bestelakoa da: elkartasuna adieraztea, babesa ematea... Hor duzue adibidea, logika nola aldatzen den. Buruzagi berak ginen, baina gobernuan egotean, kalkulatu politikoaren logika lehenesten hasi ginen, logika pragmatikoari men egiten. Ezin ginen fronte guztietan aldi berean borrokatu. Baina gizarte-mugimenduek eskubidea dute horretarako gai direla pentsatzeko, beti izan garelako horrelakoak. Gobernuan ez, gobernuan zuhurrago jokatzera behartuta zaude: *“Eskuineko sektore honekin*

dugu gatazka izozkailuan sartuko dugu, ez baitugu borroka-fronte askorik sortu nahi". Baina eskuineko sektore horren aurka borrokan ari den sektore sozialari ezin diozu esan logika pragmatiko hori onar dezala; eskubide osoa du borrokan jarraitzeko.

Hor sortu ziren lehen kontraesanak. Klima-aldaketari eta Ama Lurraren eskubideei buruzko munduko gailurraren deialdia une oso garrantzitsua izan zen. Nazioarteko ekitaldi nagusi horretan, kapitalismoaren, antropozentrismoaren, eta patriarkatuaren ikuspegi alternatiboa izan genuen aztergai, Ama Lurraren eskubideak errespetatuko zituen ikuspegia. Une horretan bidegurutzetako baten aurrean ikusi genuen geure burua: Zer bideri jarraitu behar diogu? Ama Lurraren eskubideak errespetatzearen aldeko bideari? Edo garapenerako eskubidea aldarrikatzen duen bideari? Azkenik bigarren aukera hori hobetsi zuen Boliviak. Halaxe esan genuen gure artean: kapitalismoaren bultzatzailek egin zuten planetaren garbiketa eta, beraz, aldi batean bide estraktibistari jarraitu behar diogu.

Dena garapenaren alde

Evo Moralesek –lagun handia dut eta izugarri errespetatzen dut– hala esan zuen: *“Ezin dugu iparraldeko herrialde kapitalisten basozainak izan”*. Alabaina, basozainak, bai, izan behar dugu, ez herrialde kapitalisten mesedetan, Pachamama edo Ama Lurraren mesedetan baizik. Natura errespetatu nahi dugu, eta basoak dira haren birrikak. Nola utziko diegu baso-soiltze basati horrekin jarraitzen? Bolivian, bertako basoen edo berezko oihanaren 160.000 eta 250.000 hektarea artean ebakitzen dira urtero. Kasu askotan, baso-soiltzea ez da zuhaitza ebaki eta esportatzeko egiten; besterik gabe, erre egiten da basoa. Geldiarazi egin behar dugu jardun hori.

Hala ere, Ama Lurraren aldeko diskurtsoari eutsi arren, praktikan ez genuen aplikatu. Hitzak bai, baina ekintzarik ez. Horixe izan zen talka-iturri nagusia. Parke Nazional batean errepede bat eraiki nahi izan zutenean, erresistentzia oso handia sortu zen, eta gobernuak ahalegina egin zuen leku horretan bizi ziren herri indigenen erresistentzia hausteko, eta hala, sektore horien aurkako errepresioari bide eman zion. Hori oso larria da, guk, gobernu gisa, ezin baitugu horrelakorik ametitu –zutenean ez genukeen egingo–, ezin dugu errepresiorik edo indarkeria-ekintzarik bultzatu gizarte-erakunde indigenen aurka. Nik Evori aurre egin nion gai hori zela-eta.

Beraz, naturarekiko erlazioa –jatorrizko proposamenean gai nagusietako bat– aldatzen eta agenda hori guztia alde batera uzten hasi zen gober-

nua, eta horrez gain, gobernuarekin erabat lerrokatuta ez zeuden nekazarien, indigenen eta bizilagunen erakundeak ahultzeari eta, areago, zatitze-ari ekin zion. Altiplanoko eta Amazonaseko bi nekazari-erakunderekin amaitu genuen, eta pentsamendu librearen aurkako diskurtsoa hasi zen gorpuzten gobernuan, pentsamendu librea oposizioarekin lerrokatzea edo kontrairaultzari eta inperialismoari jokoia egitea zelakoan. Zoritxarrez, uste horrek gero eta indar handiagoa hartu du Bolivian ez ezik baita Ekuadorren ere.

Gobernuan arduradun sindikalak izateko hasierako behar haren ondotik, aginteak bereganatu egin zituen gizarte-erakundeak eta haien zuzendaritzak, eta gobernuaren aurkako kritika oro isilarazi zituen. Eta badago zer kritikatu. Adibidez, Dakar rallya, basamortua ziztu bizian zeharkatu eta dena suntsitzen duen lasterketa hori. Basamortua kolonizatzekeo ideia da. Duela 10-12 urte gobernu neoliberalen bati rally hau ekartzea bururatu balitzaio, 40 edo 50 bide-mozketa egingo genizkion lurralde osoan, proba hori gure ikuspegiaren aurkakoa delako. Rallyan parte hartzeko 80.000 dolar eduki behar dira; petrolioaren erabilera sustatzen da; natura suntsitzen da; elitista eta kolonizatzailea da... Eta, hala ere, aurten hirugarren aldiz antolatuta da Bolivian, gobernuaren eta, zehazki, presidentearen babesarekin eta esku-hartze zuzenarekin.

Presidenteak eskubidea du hori ondo dagoela pentsatzeko. Ezin dudana sinetsi da hori auzitan jarriko duen nekazari, indigena eta langileen elkarterik ez dagoenik. Intelektual eta ekintzaile batzuek baino ez dugu kritikatzeko; erakunde biziak, aldaketa-prozesua egin zutenak, ongi bizitzearen ikuspegia bultzatu zutenak isilik daude... Hori da adierazle garbiena gizarte-erakundeek ez dutela indar handirik, autodeterminaziorako ahalmen handirik, sormenerako eta proposamenak egiteko gaitasunik.

Bezero-trataera

Arazo larria da hau. Hori dela eta, gobernu progresisten hamarkada hone-tan aurrera egin dugun ala ez galdetzen didatenean, baietz erantzuten dut, adierazle ekonomiko batzuetan eta aldarrikapen batzuetan izan direla aurrerapausoak. Baina gizarte-erakundeak duela hamar urte baino indartsuagoak al diren galdetzen badidate, ezetz erantzuten diet. Eta hori da funtsezko adierazlea aldaketa sozialerako prozesu batean. Joera hori indartu egin da bezero-trataera oso konplexu baten eraginez. Eskatuz gero, gobernuak osasun-zentro bat, futbol-zelai bat, ikastetxe bat ematen dizu. Herrialdea nola eraldatu, Batzar Konstituziogile bat nola egin, mea-

tzeak nola nazionalizatu, lurraldearen kontrola nola eskuratu... gai horiek guztiak jorratzen zituzten gizarte-erakundeak gobernura gauzak eskatzera doazen erakunde soil bihurtu dira. Eta gobernuak eman egiten dizkie. Edo zizkien. Ekonomiaren oparoaldian, ez zegoen arazorik. Bezero-erlazioa da, prebendalista.

Eta, modu horretara, gizarte-erakundeen dinamika aldatzen doa. Emango dizuna gobernu izango da, ideia hori sendotzera dator, funtsean, dinamika hori. Eta txintxo bazara, gehiago emango dizu. Aurre egiten badiozu, aldiz, gutxiago emango dizu. Eta gizarte-erakundeak logika hori ontzat ematen eta barneratzen hasi dira, justu kontrakoa izan beharko lukeenean: Dirua boliviari guztiona da. Hitz egin dezagun nola erabiltzen den modurik egokienean estraktibismoa eta egin dezagun eztabaida zabal bat eredu horri jarraitu behar diogun edo agroekologiaren, energia berriztagarrien eta abarren bideari heldu behar diogun. Horrelakorik ez dago, ordea.

Zuek esango duzue asmoak oso onak direla, baina estraktibismoari jarraitu beste biderik ez dagoela. Batzuek diote arrazoi dudala analisisian, baina beste bidea zein den galdetzen didate. Nik ez dut horrela uste.

Adibide bat jartzen diet, gobernuaren logika pragmatikoari berari jarraituz: megaenpresa batzuk eraikitzen goaz, eta basoa urez betetzera (200.000 hektarea baso hartuko ditu batek), elektrizitatea sortzeko, eta argudio nagusia da boliviari batzuek ez dutela energia elektrikorik. Nola ukatuko diezu energia elektriko boliviari? Basoa sakrifikatu behar badugu, sakrifikatuko dugu.

Baina gainera, megaenpresa horien bidez, barneko eskariari erantzuteaz gain, energia esportatuko dugu. Egia esan, elektrizitate horren zatirik handiena ez da barne eskariari erantzuteko, esportatzeko baizik, Bolivia Hego Amerikako bihotz energetikoa bihurtzeko. Hori da gobernuaren proposamen handia orain. Eta ez soilik megaenpresa horien bidez, baita energia nuklearraren bidez ere. Izan ere, energia nuklearreko zentro bat jartzekotan dira El Alto hirian, hasiera batean 150-200 MW sortzeko. Gobernuaren diskurtso batzuetan, ordea, 1.000 MW-ra iritsiko dela ere aipatu dute. Eta hori guztia pobreziatik ateratzeko, garapenerantz eta modernitaterantz jotzeko.

Azter ditzagun zenbakiak: presa egitea 3.000 eta 5.000 milioi dolar artean kostako da. Beste aldean, eguzki-energia sortzeko prezioak asko txikitu dira (gaur egun, MW baterako gehienez 2 milioi dolar behar dira, eta 1,5 milioi aski izan daitezke), eta kontuan izan behar da Bolivian eguzki-erradiazioa oso handia dela, lurraldearen erdia 3.500-4.000 metroko altueran dagoelako. Beraz, 4.000 milioi dolar inguruko inbertsioarekin erantzun geniezaioke Boliviak duen eskari osoari, eta seguru asko, baita askoz zenbateko txikiagoarekin ere.

Baina, horrez gain, logika aldatu behar da. Izan ere, gure proposame-na da ongi bizitzea, energia berriztagarrien bidez naturari kalte gutxiago eginda, eta, horrez gain, energia-kontsumitzaileen gure rola ere aldatu behar dugu eta ekoizle bihurtu behar dugu. Ez dugu eguzki-energia metatu nahi, Indian edo Txilen egiten duten bezala, eguzki-panelak bata bestearen ondoan pilatuta, normalean planta horiek enpresa pribatu batek kontrolatzen baititu eta horiek egiteko desplazatu egiten baititu bertako herritarrak eta indigenak. Familietan, komunitateetan, udalerrietan jar genitzake eguzki-panelak eta horien bidez sor genezake eguzki-energia, eta ez soilik autokontsumorako, baita sarean energia edukitzeko ere, eta familia, komunitate edota udalerrri horietako kideak sozialki eta ekonomikoki ahalduztzeko, energia-kontsumitzaileak ekoizle bihurtuta.

Ez da egia beste aukerarik ez dagoenik eta garapenerako aukera bakarra lehengaiak erauzten jarraitzea denik. Hauxe da gure makurrik handienetakoa. Zenbait lorpen txiki eskuratu ditugu, baina, oro har, gobernuak estraktibismoaren alde egiten jarraitzen du. Ikusten duelako eredu horrek baliabide ekonomiko azkarragoak emango dizkiola. Boterearen logikak ezkerreko gobernu bereganatzen du, logika horrek berak eragiten du estraktibismoaren eta gisako eredu ekonomikoen alde egitea. Funtzionalak direlako boterearen logika hori sostengatzeko, erreproduzitzeko eta boterean bertan goxo egiteko. 2012 eta 2015 artean Asian egon nintzen, eta itzuli nintzenean petrolioaren prezioa jaisten hasi zen. Espero nuen gobernuak erantzun egingo zuela, jabetuko zela aldaketaren beharraz, konturatuko zela ezin ziola luzaro lehengaietan oinarritutako ekonomiaren bide horri jarraitu, prezioak erortzen hasten direnean, ekonomia bera amiltzen delako. Aldatzeko unea zen, behin betiko erori aurretik. Hala ere, erantzuna beste hau izan zen: *“Egia da prezioak jaisten ari direla. Diru-sarrerak gutxitu egingo zaizkigu; beraz, bikoitza erauzi behar dugu”*.

Gobernuak, etsi-etsian, hainbat neurri hartu zituen atzerriko inbertsioak erakartzeko, aurrez transnazionalei jartzen genizkien arauak malgutzeko;

izan ere, behar-beharrezkoa zuen diru-sarrereren jaitsiera handia konpen-
tsatzea.

Kontraboterea

Zer ikasgai atera behar da egoera honetatik?

Batzuek diote gobernuan sartzea, hori izan zela gure hutsegite handie-
na. Gizarte-erakundeek ez dutela politika eta gobernuan sartu behar. Ni ez
nator bat horrekin. Estatuan esku hartzen ez baduzu, botere politikoa
eskuratzen ez baduzu, beti defentsiban egotera behartuta zaude, zeure
eremua babestuz, baina ezingo duzu, inoiz, gizartea osotasunean eralda-
tu. Egia da, hala ere, gobernuan sartzekoan, boterearen logika horrek
harrapatu eta lotu egiten zaituela eta ikuspegia galtzen dela.

Gure hutsegite handiena izan zen prozesu honen aitzindari eta bultza-
tzaile izan ziren gizarte-mugimenduen eta erakundeen indarra, autodeter-
minazio-gaitasuna eta independentzia hasiera-hasieratik ez gordetzea.
Indar eta gaitasun hori gordeta, kontrabotere bat sortuko genukeen gober-
nura sartzera zihoan ezkerari aurre egiteko. Izan ere, gure proposamena
da estrategia bikoitzari eustea, botereari eta kontrabotereari, biei, aldi
berean. Eta ardatza kontraboterean datza, egiazko indarra eta boterea
gizarte-mugimenduetan dagoelako, ez estatuan.

Baina inoiz ez dugu erlazio hori aldatzerik lortuko, baldin eta arrakasta
izan eta ezkerreko gobernu bat eratzeko aukera edukita, gure fede eta
esperantza guztia, gure energia guztia, gobernuaren esku uzten eta jar-
tzen badugu, eta ahazten badugu bide horrek, ezinbestean, ez gaituela
urrutira eramango. Azken mendean hainbat herrialdetan gertatu diren
esperientzia asko eta askoren adibidea hortxe dugu, arazo bat dugula
jabetzeko, eta gizarte-mugimenduen kritikarako eta antolatze gaitasuna
askoz gehiago indartu behar dugula jakiteko; areago, beste egitura berri,
indartsuago eta ahaltsuagoak sortu behar ditugula ohartzeko. Eta guber-
nuan sartzera doazenek jakin behar dute eremu arriskutsuan sartu direla,
eta ez direla ezereen eta inoren salbatzaileak. Hemen salbatzaile bakarrak
langileak berak eta mugimenduak dira. Eta asmorik onenekin sartu arren
–persona oso zintzo eta nobleak ikusi ditut logika horren sarean harrapa-
tuta–, arazoa ez da gizabanakoena. Kasu batzuetan, ezaugarri indibidua-
lek larriagotu egin dezakete arazoa, baina hainbeste kasu ikusi ondoren,
agerikoa da klase politikoarena baino arazo askoz konplexuagoa dela.

Hori dela eta, uste dut gogoeta sakona egin behar dugula boterearen
eta estatuaren gaiari buruz. Zuei Espainian bizitzea egokituko zaizue, dina-

mikak erakusten baitu, hainbat zirrikitutatik, ezkerreko gobernu baterantz zoaztela, gobernu progresista baterantz. Nola jokatu? Zer egingo du ezker horrek gobernuan? Eta kanpoan dagoen ezkerrek, gizarte-mugimenduetakoak? Podemos alderdiko buruzagiek hainbat aldiz bisitatu gaituzte Latinoamerikan, baita Bolivian bertan ere, eta Boliviako esperientzia gores-teko jarrera izan dute. Bikain, baina beste aldea ere kontuan hartu behar da, ez bagara horretaz jabetzen eta ez badugu horretatik ikasten, orain Latinoamerikan gertatzen ari dena gertatuko baita; izan ere, han, bukatzen ari da gobernu progresisten zikloa, eta egoera askoz larriagoa datorkigu, ez ginelako gai izan benetako eraldaketa lortzeko eta gizarte-mugimen- duei egiazko bultzada eta sendotasuna emateko.

Eskuina, zelatan

Botereari eusteko, Bolivian, baita Brasilen ere, eskuineko sektore bat kol-patu zuen gobernuak eta beste sektore batekin negoziatu egin zuen. Brasilen, MDB zuten gobernuaren barnean. Bolivian, eskuinaren sektore bat auzipetu egin zuen gobernuak, eta beste sektore batzuk gobernuaren diziplinapean jarri ziren, beren negozioekin jarraitu ahal izateko. Alabaina, lehengaien prezio altuen olatua igaro eta irabaziak gutxitu diren honetan, eta gobernu arazoak izaten hasi dela sumatu dutenean, gobernura itzuli nahi dute eskuineko sektore horiek. Eta edozein martingala erabiliko dute horretarako. Eskuina jo eta su ari da lanean, berriro ere inperialismoarekin itzultzeko, eta egingo dute. Argentina, Brasil, Venezuela... hor ditugu adi-bideak. Nola erantzun eskuinaren eraso horri? Bolivian, gotortzea eta inolako hausnarketa kritikorik ez egitea, hori bide da erasoari aurre egiteko modua. Nire ustez, hori ez da bidea. Eskuinaren aurka defentsarik onena autokritikoak izatea da. Eskuinari eredu alternatibo batekin eta proposa-men alternatiboekin aurre egingo badiogu, zer egin dugun aztertu behar dugu.

Bolivian, gobernuak erreferendum bat deitu zuen otsailean, presiden-teak eta presidenteordeak 2019an berriro hautatuak izateko aukera izan dezaten. Galdu egin zuen galdeketa, eta, hala ere, mekanismo berri baten bidez konstituzioa aldatzeko eta berriro aurkeztu ahal izateko ahaleginean jarraitzen du tematuta.

Bai, eskuinak konspiratzen du, baina hutsegite horiekin bidea zelai-zelai uzten diegu konspiratzaileei. Eskuinaren akusazio nagusia da jaun-andre hauek behin betiko geratu nahi dutela gobernuan. Txandakatzea sustatu beharko litzateke. Jauntxoan, liderren eta buruzagien kontu hori ez

genuen inoiz onartu behar Bolivian; oso hutsegite larria izan zen. Komandante eta abarrekin ez dugu gizartea aldatuko. Horrekin, hain zuzen, eskuina itzultzea besterik ez dugu lortuko.

Proposamenak egiteko gaitasuna

Gobernuan daudenek hori sustatu behar dute, kontrabotere bat izatea. Onartu egin behar dute akats ugari egingo dituzten pertsonak direla, eta bultzada eman behar diete erakunde horiei. Bestalde, erakundeok, gobernua kontrolatzeaz, parte hartzeaz eta agintariei exijitzeaz gain, herrialde-ikuspegia, estatu- eta proiektu-ikuspegia aintzat hartuta hasi behar dute lanean, aldarrikapen hutsean geratu gabe. Egon badago horretarako aukera. Eskarmentuak erakutsi dit, ordea, kasurik gehienetan kontrakoa gertatzen dela. Boterea bereganatzeak duen arriskuaz jabetu behar dugu, eta gu ez ginen ohartu. Hala ere, ez dugu ezkor izan behar horregatik; aitzitik, ikasi egin behar dugu gure hutsegiteetatik.

Aurrekontua zehazterakoan parte hartzeko aukera ematea, adibidez, esperientzia positiboa da.

Ekuatorren, Correak konpentsazio bat eskatu zion nazioarteari Yasuniko petrolioa ustiatzeari uzteagatik, eta, jaso ez zuenez, petrolioa atezarren jarraitu zuen. Alabaina, hainbat herritarrek eutsi egin zioten beren posizioari eta erreferendum bat eskatu zuten. Ez dut uste batzuok arrazoia dugunik eta besteek ez. Gehien kezkatzen nauena da ezkerreko gobernuek eztabaidari atea ixtea eta gizarteari bete-betean eragiten dioten erabakiak gizarte-mugimenduen esku ez uztea. Izan ere, erabaki garrantzitsuenak, batzuetan, ez dira kontsultatzen. Hori aldatzeko aukera egon badago, baina horretarako, gobernutik kanpora dagoen alderdiak indartsua, sendoa eta dinamikoa izan behar du.

Ustelkeria

Bolivian, boterearen logikaren gaia ez da politikoa soilik; ekonomikoa eta soziala ere bada. Boterera iritsi aurretik, nekazarien buruzagi batzuk ez ziren 100 dolar irabaztera iristen. Eta bat-batean, 1.200-1.500 euroko diru-sarrerak jasotzen hasi ziren. Boterearen logika pragmatikoaz gain, egoera sozioekonomikoa ere aldatu egin zen. Gobernuan dauden lagun askok arrazoia ematen didate, baina, era berean, beren familia La Pazera ekarri dute, eta esaten dute aurre eginez gero, berriro ere landa-eremura kanporatuko dituztela. Aldaketa materiala da. Desorekak hain handiak ez diren

gizarteetan, beharbada arazoa ez da horrenbestekoa, baina Bolivian bai, bada.

Bolivian, baita Venezuelan ere, bada beste arazo bat: diru asko dagoela. Diru-iturri nagusia estatuarekin kontratuak egitea da. Lehen aldiz dirua banatu diegu udalerrri guztiei; hori, berez, ona da, baina zenbait arazo ere ekarri ditu: adibidez, bateko eta besteko alkate, zinegotzi eta abarren senideek akordioak egin izan dituzte eskola bat eraikitzeko, eta hortik %20-30 atera dute zuzenean beren patriketarako. Baliabideen banaketak beste sektore ekonomiko bat sortu du. Venezuelan, “boli-burgesia” esaten diote; Bolivian, “aimara burgesia” edo “cholets”. Klase xehetatik sortutako sektore ekonomikoak beste dinamika bat eta beste interes batzuk ditu dagoeneko.

Boterearen logikarena da faktoreetako bat, baina horrez gain, bada besterik; izan ere, aldaketa sozialeko prozesu guztiek, Frantziako Iraultzaz geroztik, beste sektore ekonomiko bat sortzen dute eta, sektore hori, bizibaldintzak hobetzean, iraultzaile eta progresista izatetik kontserbadore izatera pasatzen da. Buru egin beharko zaio fenomeno horri: kontrol sozialeko mekanismoak behar-beharrezkoak dira. Eta horretarako bide bakarra dago: gizarte-erakundeei bultzada eta indarra ematea, horiek arduratzen baitira boterea kontrolatzeaz, ikuskatzeaz, etab.

Boliviako erakunde garrantzitsuenetako buruzagi nagusiak Fondo Indigena erakundearen zuzendaritzan jarri zituzten, noiz eta erakundeak lehen aldiz dirua izan zuenean. Hainbeste diru izan zen, ustelkeria kasuetan zuzendaritzako goi-karguak egon baitziren nahastuta. Horrek ahuldu egiten du erakunde indigenei buruz mugimendu sozialetan eta gizarte osoan dagoen irudia eta pertzepzioa. Blindatu egin behar dira eremuak. Norberaren jardun-eremuetatik ateratzen hasterakoan, horrelako arazoak sortzen dira.

Zer dira mesedegarriago eskuinarentzat: ezkerrek bere buruari eginiko kritika zintzoak edo gobernuaren hutsegiteak? Nire ustez, gobernuaren hutsegiteak. Zer gertatu zaio Kirchnerri Argentinan, edo Dilmari, Brasilen? Haien hutsegiteak baliatuz, eskuinak erasora jo du. Gizarte-erakundeek isilik geratu beharrean garaiz eta egoki egin izan balituzte egin beharreko kritikak, gobernuak ez zituen egingo hutsegite horietako asko. Kritikak eskuinari mesede egiten diolako argudioa erretorikoa da; izan ere, eskuina itzultzea eragin duten hutsegite handienak, azken hamarkada honetan, ez dira etorri, berez, gizarte-mugimenduen aurreko ekintzen eraginez.

Agenda zehaztea

Kontraboterea ez da gobernua zaintzea edo ikuskatzea soilik. Hori baino askoz gehiago da; agenda berria zein izango den zehazteko gaitasuna izatea da. Gobernura iritsi aurretik ere botere izan ginen, agenda bat zehazteko gai izan ginelako: hidrokarburoak nazionalizatzea, batzar konstituziogilea, lurraldearen kudeaketa... Herrialde eta proiektu ikuspegiarekin zehaztutako agenda da hori. Gobernura iristean, agenda horiek etengabe berregin behar dira eta, hain zuzen, funtsean hori da kontraboterearen rola eta egitekoa. Izan ere, logikoa da gobernuan sartzan dena kontserbadoreagoa bihurtzea, eta zerk funtzionatzen duen ondo, bada huraxe egitea. Gizarte-mugimenduen kontrabotereak, aldiz, sormena eta dinamismoa hartu behar ditu bere gain. Mugimendu horiek soilik zaintza lanetan jarduten badute, ez dute ekimenik. Etengabe aldaketarako agenda horiek sortzeko gaitasuna izatea, hori da kontraboterea. Aldarrikapen hutsetik ateratzea da gakoa. Boliviako kasuan, sindikatu eta nekazarien erakunde gehienak gobernuari gauzak eskatzera mugatu dira, eskaera oso bidezkoak, baina ez dute proposamenik egin.

Aste honetan, lehen aldiz, gobernuaren aurkako lanuzte nazionalerako deialdia egin dute, gobernuak herrialdeko ehungintzako fabrika nagusia itxi duelako, aurrez nazionalizatu ondoren. Orain, estatuak dirurik ez duen honetan, gobernuak fabrika ixtea erabaki du eta ia mila langile utzi ditu kale gorrian. Horrek mobilizazio handi bat sortu du; lanuzte nazionala. Inork ez du auzitan jartzen sindikatuek hori egitea; kontua da aurrez beste arrazoi batzuegatik egin behar zituztela lanuzteak, eta horrela, behar bada, ez zen gertatuko orain fabrika honekin gertatu dena, honez gero jada ez baitago konponbiderik. Izan ere, irekita eusteko, diru-laguntza izugarria ordaindu beharko luke gobernuak, eta estatuak jada ez du horretarako baliabiderik; beren diru-sarrerak galdu dituzten langileen eta familien ikuspegitik, ordea, oso gogorra da gertatutakoa. Baina hau hasiera besterik ez da. Horra hor, aurreko hamarkadan herrialdeari zegozkion gai nagusietan proposamen gehiago ez egin izanaren ondorioa; horra hor, rol aktiboagoa jokatu ez izanaren hutsegite larria.

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....